

GATIBU, AGUR ESAN BARIK

Bizitasunari eta dantzatzeko gogoari omenaldia

NAIA ARANTZAMENDI

Agur esan barik agurtzea ez da lan erraza, baina badago egiteko modurik. Hogeitabost urteko ibilaldia izan duen euskal rock taldeak erabaki hori hartu zuen; denboraz eta behar bezala agurtzeko erabakia. Horrela, amaiera kolosala izan zuen azken birari heldu zioten, eta Jabi Elortegi zuzendari bermeotarrak bidaia horren testigu izateko aukera zabaldu du *Gatibu, Agur esan barik* dokumentalean.

Fikzioan zein telebistan ibilbide luzea duen zuzendariak dokumentalak ere sinatu ditu, *Galerna*, *Infernua itsasoan* edo *1983 Euskadi inundada*, esaterako. Zuzendaria, Gatibu zalea eta taldeko abeslariaren laguna; hiru ezaugarri batu ziren eta dokumentala egiteko proposamena sortu zen. “Taldearen zalea eta rock zalea naiz hastapenetatik, beraien lehen diskoarekin, Zoramenarekin hazi nintzen; ostean, lan kontuak medio, Alex eta biok lagun egin ginen eta, zuzendaria izanda, zerbait naturala bezala sortu zen proiektua gauzatzea”.

Belaunaldi oso bat astindu duen izen bereko taldearen agur birako mugariak barrutik bizitzen dira, talde baten atzean dauden kideak, beraien nahiak, bizitzeko moduak eta

harremanak bistartzeko. “Dokumentalak taldean ezartzen du begirada; azken urte zoro horretako testigantzak, aldaketa pertsonalak zein kolektiboak eta agur esateari buruzko hausnarketak”.

Kontzertuen, errepidean igarotako orduen, ofizio kideekin izandako topaketen, edota bazkalorduan amarekin izandako elkarrizketen bidez erretratatu ditu, hain zuzen ere, oholztatik kanpo diren pertsonak, beraiek baitira dokumentalaren protagonistak.

Azken biraren kronika egiteaz haratago Alex Sardui, Haimar Arejita eta Gaizka Salazar ezagutzen ditugu. “Momentu politak, hunkigarriak eta itzalak aurkituko dituzte ikusleek. Ez nuen erakutsi nahi oholta gainean gertatzen dena, denek ikusi dutelako Gatiburen kontzertu bat bizitzan behin. Asmoa izan da erakustea nola bizi izan den Gatibu azken urteetan, zelan urtetan zehar emozioak aldatzen doazen: hasierako ilusioa, arrakasta lortzea... eta agurrera arte”.

Euskaraz, bizkaieraz, abestea erronka bat izan zen baina heldu egin zioten, eta zelan gainera. Gernikan ondutako taldea gutxinaka oihartzuna izaten hasi zen, eta gupil geldiezin bat abian jarri zuten. Publikoarekin konektatzeko gaitasuna taldearen

ezaugarri bereizgarriena baita, hain zuzen ere, belaunaldi ezberdinetako pertsonak batzen dituelako; “hori da taldeak duen gaitasuna, konexioak sortzen dituela”.

Horrela, ikur bilakatu diren abestiak pilatuz joan dira, eta horrek ekarri duen presioa ere pantailan somatzen da. “Ez da batere ohikoa Gatibuk lortutakoa, baina egin dute, eta sekulakoa da. Abesti bat *hit* bilakatzen denean presioa handia da, jendea hurrengoaren zain dagoelako, baina ‘nola egin horrelako beste bat?’ Gatibuk bata bestearen atzetik egin ditu”.

Elortegiren esanetan kardiograma bat marrazten joan da dokumentalean. “Emozio guztiak ukitu nahi izan ditut”. Filmean igarotzen diren uneaipagarrien artean Zeppeling tabernako kontzertua, Gernikako azken kontzertua, Urepelen -bere lehen abestiari izena eman zion herrian- emandako kontzertua, Boiseraren egindako bidaia edota Bizkaia Arenan sarrera guztiak agortu zituzten hiru kontzertuen une ahaztezinak nabarmentzen dira.

Zorion perfektua (New Directors, 2008) eta *El vasco* (Zinemira, 2022) lanekin Zinemaldian egon ostean, Elortegi Zinemira sailera bueltatzen da. “Dokumentala abiatu nuenean asmoa ez zen horrelako ibilbide bat egitea, baina lagun arteko ikustaldi



Argazki oina: Jabi Elortegi Gatibu, agur esan barik dokumentalaren zuzendaria.

bat egin ostean, eta jendearen arrera nolakoa zen erreparatzean, ibilbide bat izan behar zuela ikusi genuen. Donostia Zinemaldia gure jaialdia da, eta sekulakoa da gainera. Hortaz, guretzat zoragarria da hemen egoteko aukera izatea”.

Taldeak izan duen bizitasunari, alaitasunari eta dantzatzeko gogoari

egindako omenaldi bat dugu *Gatibu, agur esan barik* filma. “Emozioz, errespetuz eta hurbiltasunez kontatu nahi izan dugu historia hau, eta ikusleak eurtan dantzan dagoela sentitzea izan da asmoa”. Hain zuzen ere, taldeak agertokiak utzi zituelako, baina mila doinu utzi dituztelako oraindik ere airean.

Gatibu, la marca que definió la música popular en euskera

JON PAGOLA

Hace ahora dos años –el 18 de septiembre de 2024– Gatibu anunció su despedida en un comunicado firmado por sus tres miembros principales, Alex Sardui (voz), Haimar Arejita (guitarra) y Gaizka Salazar (batería). Su disolución fue todo un shock en el panorama del *mainstream* musical vasco. La renuncia, consensuada y amistosa entre los músicos, coincidía con el 25 aniversario de la creación de uno de los tótems del pop-rock en euskera en el siglo XXI. Según reconoció Sardui, el “desgaste” les había pasado factura y decidieron ponerle punto final a su aventura musical en una fecha redonda.

Los miembros de Gatibu no cerraron el chiringuito de la noche a la mañana. Se embarcaron en una ambiciosa gira final (*Agur esan barik*) que culminó con un multitudinario concierto en el BEC de Barakaldo el pasado 13 de diciembre. En este tiempo, también han lanzado un do-

ble álbum en directo de dos horas de duración (“Azken zoramena”, de su última actuación en casa, en Gernika-Lumo) plagado de todos sus éxitos, además de un documental sobre su carrera. A su lado, el (mítico) concierto de despedida que filmó Martin Scorsese para el grupo The Band casi parece una nota al pie de página de la historia de la música.

Su marca distintiva fue la de hacer

una música rock accesible y para todos los públicos en bizkaiera, el euskalki o dialecto del euskera en Bizkaia. Tal y como reconoció su guitarrista alguna vez, eso les daba un toque un tanto exótico en el universo musical euskaldun, donde impera el euskera batua, el estándar de la lengua vasca. A los programadores vascos, públicos y privados, la propuesta amable e intergenera-

cional de Gatibu les venía de perlas. Siempre pareció que estaban en todos los lados: en las plazas de los pueblos, en las salas, en los festivales, en fiestas, en la radio, en televisión, hasta en los días de partido de fútbol. En 2022 el grupo actuó en el exterior de San Mamés antes del partido que enfrentó al Athletic con el Villarreal.

Tuvieron un inicio meteórico. Fueron una banda de éxito desde su primer álbum, “Zoramena” (2002), donde lograron engatusar a Robe Iniesta, el fallecido líder de Extremoduro, y Fito Cabrales para que cantaran en euskera dos robustos temas: ‘Mila doinu aidien’ y ‘Urepel’, respectivamente. En ese disco de debut, que despachó 20.000 copias, también estaba otro clásico, ‘Musterrek sartunde’. Las canciones de Gatibu empezaron a sonar sin parar en la radio y, junto a Zea Mays y Ken Zazpi, no tardaron en convertirse en una de las bandas más importantes de Euskal Herria. Definieron una era de la música popular vas-

ca encadenando *hits* prácticamente en cada álbum, hasta llegar a la vitalista y buenrollera ‘Aske Maitte’ cantada a dúo con Izaro en 2016.

Modificaron un poco su fórmula en los últimos años y decidieron probar cosas nuevas, explorar otros territorios. Con “Azken indioak” (2018), grabado en Texas, pulieron y modernizaron su sonido, mientras que en su último disco de estudio, “EH distopikala”, se impregnaron de pop electrónico, funk y ritmos exóticos. Gatibu habían salido de su zona de confort, aunque estos discos no lograron el impacto comercial de sus anteriores trabajos. Los fans añoraban sus viejos éxitos, ese rock melódico marca de la casa. En verano de 2024, Alex Sardui se metió en un jardín al afirmar que en el gremio musical “jamás” había visto discriminación hacia las mujeres. Luego pidió perdón por sus palabras en un vídeo. Eso fue antes del baño de masas de la larga despedida de Gatibu, donde han rentabilizado su marca.

